

Iragan mendean, Gernikak bere izena daraman kapitulu berri eta ilun bat zabaldu zuen izugarrikeria unibertsalaren historian. Palestina da orain basakeria berri baten protagonista, apenas imajinatu dezakegun izugarrikeria berri batekin desagerrarazi nahi duten herria. Basakeria hori bizitzea zer izan daitekeen ez dakigu, baina badakigu basakeria zer den. Eta ez diogu beste izenik emango. Herriaren erauzketari genozidioa deituko diogu. Okupazioa, okupazioa dela esango dugu. Soldadurik ez daukan herria soldaduekin erasotzeari ez diogu gerra deituko. Herriari bere ospitaleak kentzeari, bere unibertsitateak suntsitzeari, bere haurren eskolak eta bere haurrak desagerrarazteari ez diogu zibilizazioa deituko, ez dugu defentsarako eskubidearen izenean onartuko, ez dugu engainu horretan parte hartuko, ez dugu palestinarren herria iruzurraren eta engainuaren aurrean entregatuko.

Humanitatearen kontrako krimen honen aurrean ezer egingo ez bagenu, geure humanitatea entregatuko genuke. Ez dugu geure humanitatea entregatuko. Ez dugu amorerik emango.

Ez gara izango herri oso batekin bukatu nahi duen Estatu kriminal baten konplizeak, ezta ere Estatu horren konplizeak diren beste Estatu guztiak bezain kriminalak. Palestinarren genozidiori aurre egingo diogu.

Hemen, Deban, Herri bat entzuten dugu, laguntza eske, aldarrika, Palestinarren herritik datorrena. Palestinarrak dira ordu ilun honetan laguntza behar dutenak eta herri honek aldarri horri erantzun nahi diolako, eman diogu Palestinari gure elkartasuna, gure laguntza txikia.

Gure eskerrik beroenak ekitaldi honetan parte hartu duzuen guztioi. Debako herriak argi utzi du bere elkartasuna, bere humanitatea.